

## a.2 GURE LAGUN JOXE: OINARRI-OINARRIZKO AURKEZPENA

### > Joxeren aurkezpena



#### Helburuak

- Umeek Joxe ezagutzea.
- Joxerekin hasierako harremana egitea.
- Umeek ikasturtearen nondik norakoak ezagutzea.

#### Prozedura

- Lehenik eta behin, umeei esan Joxe ezagutuko dutela. Esan hezitzailearen laguna dela eta Joxek beraiek ere ezagutu nahi dituela. Hezitzaileak beraietaz hitz egin die Joxeri eta laguntzeko irrikan dago.
- Aurkezpena ikusi umeekin. Poliki-poliki erakutsi diapositiba bakoitza. Hasieran euskaraz irakurri eta ideia nagusiak itzuli. Itzuli aurretik umeei galdetu zer ulertu duten. Irudi argiak dira eta baliteke itzulpena egin gabe ulertzea.
- Umeekin Joxeren inguruan hitz egin. Zer iruditu zaien, gogoia daukaten bere lagun izateko, eskatutako lanak betetzeko prest dauden...
- Umeei argi azaldu zer diren "hitzen txokoa" eta "gelako ohiturak".

#### Oharrak

- "Hitzen txokoa" baliabideetan dago. Azalpena bertan dator.
- "Gelako ohiturak: asteko arduraduna" lantzeko karpetan honetan bertan, a.3 puntuan, dena azalduta dago.
- Aurkezpena egin aurretik "hitzen txokoa" eta "gelako ohiturak: asteko arduraduna" begiratu eta ulertu azalpenak, bideoa ikusi eta gero beharrezkoak izango baitira.